BIZITEGI ERAIKINA — ARRASATE 23

D MAILA





Egilea eta data: Jose C. de Goicoa; 1889

Deskribapena

Kantoiko eraikina, behe oina, jatorrizko hiru goi oin eta hiru jasodura dituena: lehenengoa, fatxada planoan (1912koa); bigarrena txapituladun estalkipean eta, hirugarrena, atzeraemana (azken biak 1938koak). Fatxada harlandua, kantoiko alakan hormigoizko begiratokia (1939koa, 1912ko zurezko beste bat ordeztu bide zuena) duena. Hondarribia kalean bao bikoiztu bat dago, jatorrizko proiektuan agertzen ez dena. 1945ean bi bao handitu ziren itxuraz Arrasate kaleko fatxadan. Proiektu komuna Hondarribia 20rekin, egun ordeztua.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra:
   Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
   Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
   A. Babesetik kanpo utzitako kanpo elementuak edo zatiak: jasodurak (5. eta 6. goi oinak).
   B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
   C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.